LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esp. Zkia.-	OZ-2025-120
Esp. Elektr.	EE-2025-00579
Lizit. Elektr.	B052-2026-00003

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA, KONTRATAZIO PROZESUA PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ ARAUTUKO DUENA, HAINBAT ESLEIPEN IRIZPIDEREKIN, LARRABETZUKO FUTBOL ZELAIKO ALDAGELAK ETA INSTALAKUNTZAK BERRIZTEKO OBRA EGITEKO.

A.- Kontratuaren xedea.

Proiektu honen xedea da Larrabetzuko futbol zelaiko aldagelak eta instalazioak handitu eta eraberritzeko behar diren obrak egitea, exekuzio-proiektuan ezarritako baldintzetan. Obraren egikaritzea espediente honekin batera doan eta Baldintza Teknikoen Agiri (PPT) gisa formulatzen den obra-proiektuan ezarritako baldintzetan gauzatuko da.

CPV kodea	45212200-8 (CPV nagusia): kirol-instalazioak eraikitzeko lanak
SARA kontratua	EZ
Kontratazio-arloko errekurtso berezia	EZ
Loteak	EZ
Espedientea hasteko eguna	2025/12/15

*LOTEAK: EZ dagokio loteak egitea. Prestazioak modu zatituan egiteak kontratuaren exekuzioa bera oztopatu dezake, kontrola eraginkorragoa baita kontratua enpresa bakarri esleitzen bazaio. Loteak eginez gero, eta enpresa desberdinei esleituz gero, obraren elementu desberdinen koordinazioa zaildu egiten da eta kontratuaren objektuaren betearazpena arriskuan jar daiteke.

B.- Zerbitzu sustatzailea.

Larrabetzuko udala.

C.- Kontratazio eta zuzendaritza organoa.

Kontratazio organoa: Udalbatzaren osoko bilkura.
Kontratuaren arduraduna: Udaleko arkitekto teknikoa, Izaskun Etxebarria.

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa:

Mahaiburua:	Amaia Lekue Mezo, Larrabetzuko Udaleko alkatea.
1. kidea	Ane Ituiño Pérez, udaleko AOT funtzionarioa
2. kidea	Izaskun Etxebarria Vadillo, udaleko arkitekto-teknikoa funtzionarioa
3. kidea	Ortzi de la Quintana Ibáñez, udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Idazkaria	Nerea Uriarte Iza, udal funtzionarioa.

D.- Lizitaziorako Oinarrizko Aurrekontua eta Kontratuaren Balio Zenbatetsia.

- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua LAUREHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (486.135,48€) da.

<table>
<tr><td colspan="4">LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZ barne) SPKLren 100. Art eta Erregelamenduaren 131 art.</td></tr>
<tr><td>Lizitaziorako Oinarrizko Aurrekontua
(% 21 BEZ barne)</td><td colspan="3">486.135,48€</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua zatikatua.</td><td rowspan="3">Aurrekontua</td><td>Exekuzio materialeko aurrekontua</td><td>337.617,53€</td></tr>
<tr><td>Gastu orokorrak (13%)</td><td>43.890,28€</td></tr>
<tr><td>Etekin industriala (6%)</td><td>20.257,05€</td></tr>
<tr><td></td><td>GUZTIRA</td><td>401.764,86€</td></tr>
<tr><td>BEZ (% 21)</td><td colspan="2">84.370,62€</td></tr>
<tr><td></td><td>GUZTIRA</td><td colspan="2">486.135,48€</td></tr>
</table>

Proposamen ekonomikoa AKPPren II. eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan aurkeztuko dira eta prezioak bi hamartarrekin adieraziko dira. Proposamenean BEZari dagokion zenbatekoa modu independentean adierazi beharko da.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

- Kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratuaren balio zenbatetsia, aldaketak barne eta BEZ kanpo, LAUREHUN ETA BAT MILA ZAZPIREHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA LAUROGETIA SEI ZENTIMO (401.764,86€) da.

<table>
<tr><td colspan="4">KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZ KANPO) SPKLren 101. Art.</td></tr>
<tr><td>Kontratuaren balio zenbatetsia</td><td colspan="3">401.764,86€</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Kontratuaren balio zenbatetsia modu zatikatuan.</td><td rowspan="4">Aurrekontua</td><td>Exekuzio materialeko aurrekontua</td><td>337.617,53€</td></tr>
<tr><td>Gastu orokorrak (13%)</td><td>43.890,28€</td></tr>
<tr><td>Etekin industriala (6%)</td><td>20.257,05€</td></tr>
<tr><td>GUZTIRA</td><td>401.764,86€</td></tr>
<tr><td>BEZ (%21)</td><td colspan="2">84.370,62€</td></tr>
<tr><td>GUZTIRA</td><td colspan="2">486.135,48€</td></tr>
</table>

E.- Aurrekontu esleipena.

Kontratu hau gauzatzeko,2026 ekitaldirako Larrabetzuko udaleko Aurrekontu Orokorrean kreditu nahikoa dago 920.62200 aurrekontu-partidan.

F.- Urteak.

Obra exekutatuko da 2026 urtean.

G.- Tramitazioa

Arrunta.

H.- Esleipen-prozedura eta era.

Prozedura irekia, esleitzeko irizpide anitzekin.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

I.- Lizitazio elektronikoko sistema.

Derrigorrezkoa da erabiltzea.

Jarraibideak: http://www.larrabetzu.eus/_layouts/Docs/Manual_licitacion.pdf

Lizitazio elektronikorako aplikazioa:

https://apps.bizkaia.eus/sobresjnlp/webstart/aplicaciónOfertas.jnlp

Aplikazioa instalatu ondoren, lizitazio-iragarkian ezarriko den eskaintza-eskema deskargatu beharko da.

J.- Esleipen-irizpideak.

Hona hemen kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzak baloratzeko irizpideak, garrantziaren eta haztapenaren arabera:

1. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak: 55 puntu, gehienez.

a) Eskaintza ekonomikoa: 45 puntu, gehienez.

Eskaintza ekonomikoa erantsitako formularen arabera baloratuko da; formula horrek gehieneko puntuazioa (45 puntu) ematen dio eskaintza ekonomiko txikienari. Eskaintza ekonomikoak formula honen arabera baloratuko dira.

$$POi = Pmax \times (PBL-Oi)/(PBL - CB)$$

- POi= Kalkulatu nahi den eskaintzaren gehieneko puntuazioa
- Pmax= Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa (65 puntu)
- PBL = Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.
- Oi = Baloratu beharreko eskaintza.
- CB= 1098/2001 Errege Dekretuaren 85.3 artikuluan ezarritako anormaltasun- atalasean kokatutako zenbatekoa. Aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren % 90.

Eskaintza ekonomikoa aurkezteko modua: Proposamen ekonomikoa AKPPren II. eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamenak eurotan aurkeztuko dira eta prezioa bi hamartarrekin adieraziko da. Proposamenean BEZari dagokion zenbatekoa modu independente eta berezituan adierazi beharko da.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Prezioa ezin da oinarrizko aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan; eta, beraz, ez da kontuan hartuko oinarrizko aurrekontuan jasotako kantitatea baino prezio handiagoa duten eskaintzarik.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko parametroak:

Eskaintzak neurriz kanpokotzat edo nabarmenki baxuegitzat joko dira, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera; eta, kasu horretan, SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

b) Epea murriztea: 6 puntu.

Lanak egiteko kronograman murriztu ahal izango da, behar bezala justifikatuta, pleguan obra egiteko ezarritako gehieneko epea.
Kasu horretan, puntu 2 emango da obra gauzatzeko epea murrizten den hilabete bakoitzeko (gehienez 6 puntu, obraren plangintzan baloratutakoez gain).

c) Obraren berme-aldia luzatzea: gehienez 4 puntu.

Gehienez ere 4 puntu emango dira berme osagarria formalizatzeko konpromisoagatik, obraren berme-epearen iraupena luzatzean datzana. Luzapen hori LUZAPEN-URTEETAN adierazi beharko da, eta baldintza-agirian ezarritako urteko bateko berme-epearen gainetik daudela ulertuko da.

Proposamenik altuenari emango zaio puntuaziorik handiena (4 puntu), berme-epe minimoaren gainetik (urte 1), eta 0 puntu 0 urteko epearen luzapenari. Gainerako eskaintzak modu zuzenki proportzionalean baloratuko dira, formula honen arabera:

2. Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak: 45 puntu, gehienez.

a) Memoria. 40 puntu, gehienez.

Memoria teknikoak, derrigorrez honako hauek jaso beharko ditu:

- Obraren zailtasun nagusiak hautematea.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

- Eraikitze-prozesuaren definizioa eta lanen plangintza orokorra;
- Lanek zirkulazioan, oinezkoetan eta inguruan duten inpaktua murrizteko azterlana, honako hauek barne hartuta:

  • Obraren ingurunea babesteko azterketa, obra-instalazioen, pilaketa-guneen eta beharrezkotzat jotzen diren beste espazio batzuen kokapenari dagokionez, obrak egiteko eremu hertsitik kanpo.
  • obra-instalazioen azterketa, zamalanetarako maniobrak, pilaketa-guneak.
  • zirkulazio-inpaktua murrizteko azterketa, obrak ibilgailuen zirkulazioan izango dituen eraginak eta eragin horiek murrizteko proposatutako neurriak aztertuta.
  • oinezkoen gaineko inpaktua murrizteko azterlana, obrak oinezkoen joan-etorrietan izango dituen eraginen azterketari eta eragin horiek murrizteko proposatutako neurriei dagokienez.
  • obra egiten den bitartean ingurumena, paisaia eta natura babesteko neurriei buruzko azterlana.

- Obra gauzatzera eta garatzera atxikitako ekipoak eta giza baliabideak.
- Proposamenean jasotako makineria eta baliabide teknikoak.
- Obra hori gauzatzeko izango dituen hornitzaileen eta balizko azpikontratisten zerrenda, enpresaburuak azpikontratatzeko asmoa izan dezakeen kontratu-zatia adierazita.
- Materialen hornidura-iturrien zerrenda, jatorria, markak eta obrak egiteko behar diren material nagusien hornitzaileak adierazita.
- Hondakinak kudeatzeko sistema.
- Kronograma: obra beraren exekuzioaren plangintza xehatua, etapa guztiak eta etapa bakoitzean egin beharreko jarduerak definitu eta justifikatuko dituena.

b) Larrabetzuko udalarekin komunikazioa eta harremana: 5 puntu, gehienez.

- Udalarekin harremanetan jartzeko sistema bat diseinatuko da obra gauzatzen den bitartean. Sistema horrek Udalaren beraren eta zuzendari fakultatiboen, exekuzio materialeko zuzendarien eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailearen arteko harremanak koordinatu beharko ditu. Ohiko bileren egutegia ezarriko da teknikarien eta udal-arduradunen artean, obraren jarraipena egiteko. 5 puntu, gehienez.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKO PUNTUAZIOA

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona edo enpresa lizitatzaileek automatikoki zenbatu ezin daitezkeen irizpideen

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

balorazioan puntuazioaren gutxieneko bat lortzea eskatuko da; horrela, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko irizpide subjektiboen balorazioan gutxienez 27,5 puntu lortzen ez dituzten pertsona edo enpresa lizitatzaileen proposamenak.

Berdinketa kasuetarako irizpideak

Enpresa lizitatzaileen artean berdinketa ematen bada, eskaintzak aurkezteko unean hauetako egoera baten (lehentasun-hurrenkeran) dauden enpresek aurkeztutako proposamenak gailenduko dira:

a) Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duen enpresa; berdintasunak jarraituz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena duen enpresa edo plantillan txertatuta dauden beharginen kopuru handiena duena lehenetsiko da.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehunekorik handiena duena.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

K.- Behin-behineko bermea.

Ez

L.- Behin-betiko bermea.

Esleipen prezioaren %5, BEZ kanpo itxita.

Esleipenduna eskaintza anormala egin duen kasurako behin betiko bermea esleipen prezioaren %10ekoa izango da, BEZa kanpo itxita.

LL.- Prezioen berrikuspena.

Ez.

M.- Aldaerak baimentzea.

Ez da aldaerarik onartuko.

N.- Gauzatzeko/entregatzeko epea.

Obra egiteko epea, guztira, 9 hilabetekoa izango da.

Obra 2026ko ekainean hasiko da, 2025-2026 futbol denboraldia bukatzearekin batera, futbol zelaiko erabiltzaileek ahalik eta kalte gutxien eduki dezaten obrak irauten duen bitartean.

Ñ.- Luzatzeko aukera.

Ez da luzapenik ezarri.

O.- Gauzatzeko tokia.

Larrabetzuko futbol zelaian,
Helbidea: Errebale z/g, Larrabetzu

P.- Harrera eta berme epea.

Berme-epea urtebetekoa izango da, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita. Lizitatzaileak, obra gauzatzean, eraikuntza-arrisku orotako aseguru bat izan beharko du, eskainitako eta esleitutako azken prezioari dagokiona, BEZik gabe. Horrela, erantzukizun zibileko aseguru bat, alderdi hauetan: orokorra, patronala, gurutzatua eta amaitutako lanak, aseguratu gisa kontratista, azpikontratistak eta botere esleitzailea barne.

Q.- Proposamenak aurkezteko epea.

Hogeita sei egun naturaleko epean, gaueko 23:59k arte, iragarkia Kontratatzailearen Profilean (Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma) argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

R.- Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udalaren lizitazio-plataforma.

Proposamenak aurkezteko modua. Hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dira:
A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizunpeko adierazpena – Aldez aurreko betekizunak-.
B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa –aldez aurreko ebaluazioa–.
C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –osteko ebaluazioa–.
Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri independentean, barruan dauden dokumentuen zenbaki-zerrenda jasoko da.

Proposamenen edukia.

A. GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. Gutun-azal horrek dokumentazio hau edukiko du:

1. Administrazio-klausula zehatzen agiriko I. eranskinaren arabera kontratatzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. DEUC

Legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko eskatzen diran baldintzak betetzen diran ala ez erabakitzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen dan eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIRAN ERISPIDEAK

Gutun-azal horretan sartuko dira irizpide subjektiboetan identifikatutako dokumentu guztiak, eskaintzak balioesteko eta haztatzeko behar den dokumentazio guztiarekin, automatikoki kuantifikatu ezin diren esleipen-irizpideei edo balioespen subjektiboko irizpideei dagokionez. Baldintza-agiri honen karatulako J atalean daude zehaztuta irizpide horiek.

C GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEKEZAN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan eskaintza ekonomikoa sartuko da, II. eranskinaren arabera (karatularen J atala).

S. Publizitate gastuak.

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira lizitazioa aldizkari ofizialetan eta, hala badagokio, eguneroko prentsan edo beste hedabide batzuetan argitaratzearen ondoriozko gastu guztiak; beti ere, hirurehun euroko gehieneko mugarekin.

T. Gaitasuna, enpresa- edo lanbide-gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

T1. Gaitasuna.

BAZP zehaztutakoaren arabera

T2. Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

1.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Kaudimen finantzarioa edo ekonomikoa horrela egiaztatuko da:

1.- Arrisku profesionalengatik 500.000 euroko edo gehiagoko kalte-ordainen asegurua duela egiaztatzen duen agiria. Aseguru polizaren kopia aurkeztu beharko da eta hori indarrean dagoenaren ziurtagiria.

Aseguru horrek indarrean egon behar du eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, eta, gainera, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztu behar du, kontratua gauzatzen den bitartean aseguruaren estaldurari eutsiko zaiola bermatzeko.

Lizitatzaileak edo hautagaiak baldintza hori betetzen duela ulertuko da, baldin eta bere eskaintzan, esleipenduna izanez gero, eskatutako asegurua harpidetzeko konpromiso lotesle bat jasotzen badu. Konpromiso hori SPKLren 150. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen den hamar egun balioduneko epean gauzatu beharko du.

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren muga-eguna jasoko dira, eta asegurua harpidetzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez, hala dagokionean.

2.- Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren balio zenbatetsiaren halako bat eta erdi izan beharko da gutxienez.
Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartu eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

2.- Gaitasun teknikoa edo profesionala:

Enpresariaren kaudimen teknikoa gutxienez hurrengo bi neurrien bitartez egiaztatu beharko da:

a).- Azkeneko bost urteetan exekutatu diren obren zerrenda, zerrenda hori exekuzio egokiaren ziurtagiriekin batera aurkeztuko da. Ziurtagiri horiek hurrengo datuak jaso

beharko dituzte: obra exekuzioaren zenbatekoa, data eta lekua. Horrez gain zehaztuko dute horiek lanbidearen arauak jarraituz gauzatu badira eta modu onean amaitu baziren.

b).- Enpresaren barnean egon zein ez kontratuaren exekuziorako dituen pertsonal teknikoak edo organismo teknikoak adierazten duen adierazpena. Horiek egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira kontratazio organoak horrela eskatzen duenean.

c).- Enpresaren urteko batez besteko plantillari eta azken hiru urteetako zuzendari-kopuruari buruzko adierazpena, hori justifikatzen duen dokumentazioarekin batera.

d).- Obra egiteko erabiliko dituen makina, material eta ekipo tekniko adierazten duen adierazpena. Horiekin batera, dagozkion egiaztagiriak aurkeztuko dira, kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek hala eskatzen diotenean.

Kontratista enpresa sortu berria denean (enpresa sortu berria dela ulertuko da 5 urte baino gutxiago dituenean) kaudimen teknikoa b-tik d-ra doazen moduen bitartez egiaztatuko dute eta ez zaie inongo kasuan aplikatuko zaie a) letran agertzen den kasua.

T3.- Sailkapena.

Ez da derrigorrezkoa enpresa sailkatua egotea

U.- Kontratatzailearen profila

www.larrabetzu.eus.

V.- Beste zehaztapen batzuk.

V.1. Pertsona edo enpresa kontratistaren laneko betebeharrak.

Kontratua gauzatzeari atxikitzen zaizkion langileak erakunde esleipendunaren menpe daude soil-soilik. Erakunde esleipendunak enpresaburu izateari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan arloko legerian, gizarte segurantzan, laneko segurtasun eta higienean eta arriskuen prebentzioan indarrean dauden baldintzak bete beharko ditu, bai eta langile horietatik erator daitezkeen zerga eta betebehar fiskal guztiak ere. Udalak ez du erantzukizunik izango pertsona edo enpresa kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gainean.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute,

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

esleipendun gertatzen badira, eta kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko dute.

Erakunde esleipendunak, kontratua gauzatu bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du gutxienez, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du ordainsari egokia jasotzeko, eta lan-baldintzak edo langileen ordainsariak hobetzearen kostua zuzenean bere gain hartuko du, eta inola ere ez Udalari helarazteko moduan, hobekuntza hori hitzarmen kolektiboen, itunen edo edozein motatako akordioren ondorio izan zein beste edozein zirkunstantziaren ondorio izan.

Pertsona edo enpresa kontratista izango da bere eginkizunak betetzeagatik langileek izan ditzaketen istripuen erantzule, lan-arloko jurisdikzioaren aurrean. Ildo horretan, pertsona edo enpresa kontratistak beharrezko segurtasun-neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren xedapen guztiak betetzera behartuko ditu.

Zerbitzu-kontratua amaitzean, ezin izango dira inola ere finkatu kontratuaren xede diren lanak administrazio kontratatzaileko langile gisa egin dituzten pertsonak.

V.2 Funtsezko kontratu-betebeharrak.

- Izaera sozialekoak: pertsona edo enpresa kontratistaren betebeharrak, kontratua gauzatzeko ardura duten langileen afiliazioari eta Gizarte Segurantzan alta emateari dagokienez, kotizazioak eta ordainsariak ordaintzeari dagokionez, hitzarmenaren eta lanbide-kategoriaren arabera.

- Ingurugiro arlokoak: Pertsona edo enpresa kontratistaren jarduerak sortutako hondakinen ingurumen-kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra du eta DNSH printzipioa betetzeko betebeharra.

- Beste batzuk: lanak egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea.

V.3 Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

- <u>Gizarte- eta lan-arlokoak:</u>

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esleipendunaren betebeharrak lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean eta lan-baldintzei buruzko informazioan.

Kontratua gauzatzeari atxikitzen zaizkion langileak erakunde esleipendunaren mende daude soil-soilik. Erakunde esleipendunak enpresaburu izateari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan arloko legerian, gizarte segurantzan, laneko segurtasun eta higienean eta arriskuen prebentzioan indarrean dauden baldintzak bete beharko ditu, bai eta langile horietatik erator daitezkeen zerga eta betebehar fiskal guztiak ere. Udalak ez du erantzukizunik izango pertsona edo enpresa kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gainean.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, esleipendun gertatzen badira, eta kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko dute.

Erakunde esleipendunak, kontratua gauzatu bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du ordainsari egokia jasotzeko, eta lan-baldintzak edo langileen ordainsariak hobetzearen kostua zuzenean bere gain hartuko du, eta inola ere ez Udalari helarazteko moduan, hobekuntza hori hitzarmen kolektiboen, itunen edo edozein motatako akordioren ondorio izan zein beste edozein zirkunstantziaren ondorio izan.

Pertsona edo enpresa kontratista izango da bere eginkizunak betetzeagatik langileek izan ditzaketen istripuen erantzule, lan-arloko jurisdikzioaren aurrean. Ildo horretan, pertsona edo enpresa kontratistak beharrezko segurtasun-neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren xedapen guztiak betetzera behartuko ditu.

Zerbitzu-kontratua amaitzean, ezin izango dira inola ere finkatu kontratuaren xede diren lanak administrazio kontratatzaileko langile gisa egin dituzten pertsonak.

Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrei dagokienez, langileei alta eta baja eman beharko zaie, eta soldatei eta kotizazioei dagokien ordainsaria jaso beharko dute, beren lanbide-kategoriaren eta hitzarmen kolektiboaren arabera.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Enpresa esleipendunek erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko dute indarrean, gerta daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Ingurumenekoak:

Esleipendunak kontratua gauzatzean sortutako hondakinen gaikako bilketa egin beharko du. Halaber, bilgarri eta ontzi hutsak kendu beharko ditu, dagozkien edukiontzietan uzteko, edo, hala badagokio, garbigunean edo hondakinak kudeatzeko baimendutako beste sistema batean.

- Hizkuntza-betebeharrak.

Kontratu honen bidez Udalarekin sortzen diren komunikazioak, ahozkoak zein idatzizkoak izan, lehentasunez euskaraz izango dira.

Hizkuntza-paisaiari dagokionez, hau da, errotuluak, oharrak, materialak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo piktogramen bidez egingo dira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Berdintasun-klausulak.

Enpresa esleipendunak aukera-berdintasuna bermatuko du emakumeen eta gizonen arteko tratuan, enplegurako sarbidean, lanbide-sailkapenean, prestakuntzan, soldatetan eta abarretan.

Enpresa esleipendunaren plantillan bermatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatuko dela prestakuntzarekin, langileen aukeraketarekin, sailkapen edo kategoria profesionalekin, arretarekin, sustapenarekin, soldatekin, laneko egonkortasunarekin edo iraunkortasunarekin, ordezkaritzarekin, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin eta lanaldiaren iraupenarekin eta antolamenduarekin lotutako politiketan.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Ordaintzeko modua.

  Kontratistak benetan egiten dituen lanak ordaintzeko eskubidea du, hitzartutako prezioen arabera, emandako kontratuaren, onartutako aldaketen eta Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

  Obraren prezioa ordaindu aurretik, esleipendunak egindako lanen faktura aurkeztu beharko du, exekuzio materialaren zuzendaritzak ziurtatuta, eta banku-transferentzia bidez.

  Hilero, gauzatutako obra-unitateen zerrenda baloratua aurkeztuko da, obra-zuzendaritzak dagokion obra-ziurtagiria eta adostasun-txostena egin ditzan. Ziurtagiria onartu ondoren, esleipendunak dagokion faktura egingo du.

  Obraren egiaztagiri partzialen ordainketa, hura jaso ondoren eta espedientearen sustatzailea den Larrabetzuko Udalaren adostasunarekin egingo da, aurkeztu eta hurrengo 30 eguneko epean, organo eskudunak onartu ondoren.

  Pertsona edo enpresa kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak egiteko eta bidaltzeko. Faktura elektronikoak Facturae fakturazio elektronikoaren 3.2. bertsioaren formatu egituratua egokituko dira, eta sinadura elektroniko aurreratuarekin sinatuta egongo dira, onartutako ziurtagiri batean oinarrituta.

  Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztu beharko du faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez, Larrabetzuko Udalaren webgunearen helbidean. Faktura organo hartzaileari behar bezala bidaltzeko, fakturak honako hau adierazi beharko du:

  Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: kontu-hartzailetza.
  Kontratazio organoa: Alkatetza.
  Fakturaren organo hartzailea: Idazkaria – Kontu-hartzailetza.

- Azpikontratazioa.

Pertsona edo enpresa esleipendunak hirugarren pertsona edo enpresekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati bat egitea, esleipenaren zenbatekoaren % 20 gainditu gabe.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Azpikontratazioaren kasuan, pertsona edo enpresa lizitatzaileek, eskaintzan (B gutunazala), azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute, ehunekoa adieraziz, pertsona edo enpresa azpikontratistaren izena edo enpresa-profila identifikatuz eta bi aldeek sinatutako konpromiso-dokumentua erantsiz. Azpikontratuak egiteko, SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

- Kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifikoak dira:

- Zuinketaren egiaztatzea justifikaziorik gabe atzeratzea.
- Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.
- Administrazioak obrak zortzi hilabete baino gehiagoz etetea.
- Kontratuko funtsezko betebeharrak, pleguetan halakotzat ezarri direnak, ez betetzea.